

## ORRIAK ERORTZEAN...

(*Stecchetti*)

Orriak erortzean ta zu illerrira  
joan, nere gurutzaren billa,  
bazter apal batean arkituko da,  
estalgarrizat lorak dituztela.

Nere bularretik loratu direnak  
aukeratu zure motots egokientzat...  
Oiek dituzu idazten ez-nekin kantak,  
Maite-miñezko itz esan-gabeak...

OTSALAR *euskeratzaillea*

## NIRE LURRALDEAREN DEIA

(*Magali Hello*)

Emen dago a,  
mendi ontatik irtena,  
errekatoaren marmarra entzuten duen a,  
aize ta lurraren aiotsak entzuten dituana,  
mendia bere oiñarrietan tinko ikusten duen a,  
arbasoen deia entzuten duen Tell,  
bere siñestasunaren esaneko da;  
a izango da altzairuzko esia ausiko duena,  
deuseztzaille dan berunaren garaillea:  
gaua ikusi duen Tell;  
Tell'ek salbatuko du berea dan erria.

OTSALAR'EK *euskeratuta*